

EMAN EUSKARARI BIDEA

MANI EESTA ZIOA

IRUNEA - (GOLEMETATIK)

Ekainak 4 - 17:30

Euskaltzale hori, Kontseiluak, beste behin zurekin partekatu nahi du Nafarroan, euskaren normalizazio prozesuan, hizkuntza-politikan, dagoen egoeraren inguruan egiten dugun irakurketa. Bide batez, lerro hauek baliatu nahi ditugu gurekin bat egin dezazun gonbidatzeko. Orain ere, behar beharrezkoa dugulako euskaltzaleok gure aldarria kalean egitea.

Nola heldu gara hona?

- 2009ko urtearen amaieran agintean zegoen Gobernuak zartako berri bat eman zion euskararen normalizazio-prozesuari. Haserrea erakusteko eta Nafarroan euskaraz bizi nahi duen gizartea izan badelako indar erakustaldi ikaragarria egin genuen 2010eko maiatzaren 15ean.
- 2015ean eta Nafarroak aldaketarako bizi zuen giro hartan, geuk ere oso argi genuen aldaketa behar zela, baina hizki larriz idatzitako aldaketa izatekotan, euskaratik eman behar zela aldarrikatu genuen. Horrela, aldaketaren bueltan zeuden alderdiei “Nafarroan hizkuntza-politika garatzeko hamahiru proposamen” dokumentua helarazi genien, hain zuzen ere, hizkuntza-politikak egiturazko aldaketaren norabidea zehazteko.
- Are gehiago, 2015eko apirilaren 25ean Anaitasuna bete egin genuen, proposamen horren atzean euskaraz bizi nahi duen herri gogo indartsua dagoela irudikatzeko.
- Euskararen Legearen 29. urteurrenean, Nafarroako Parlamentuan, berretsi egin genuen, euskalgintzak eta instituzioek elkarrekin jarduteko garaia iritsi zela, lege horrek urteurren gehiago bete ez ditzan.

Bide eman euskarari, euskaraz bizi nahi dugu

- **Bide eman euskarari, neurri ausartak hartuz.** Jauzia egiteko garaia dela uste dugu. Kezkaz hartu genuen Euskararen lege murriztailea aldaketaren Gobernuaren desadostasunetan sartu izana. Eta, uste dugu, honez gero, bestelako neurriak hartuak egon zitezkeela. Plangintza beharrezkoa da, bai eta baliabide egokiak ere. Hori guztia aurrera eramateko eta euskarari bide emateko Euskalgintzaren bultzada eta prestutasuna erakutsi nahi ditugu.
- **Euskarari bide eman behar zaio, justiziazkoa delako, oreka soziala bermatzeko beharrezkoa delako.** Harritu gaitu azken hilabeteotan hizkuntza-eskubideen bermeari begira hartu diren erabaki batzuek zer-nolako erantzuna jaso duten. Eta hori ere azpimarratu behar dela uste dugu, hizkuntza-eskubideen bermearien aldeko neurriak justiziaren eta bizikidetzaren aldeko neurriak dira.
- **Euskarari bide ematen diogula ere erakutsi nahi dugu manifestazio horretan.** Euskalgintzak euskarari bide ematen dihardu ikasle euskaldun eleaniztunak sortuz, helduak euskaldunduz, euskal kultura sustatuz, hedabideak gure eskura jarriaz, lan mundua euskaldunduz... Eta, noski, milaka herritarrek euskaraz bizitzeko hautua eginez, eta hori ere karriketara atera behar dugu. Euskaraz bizi nahi duten herritarrak bidelagun ditugu euskarari bide emateko.

